



# Zein da zure zuku gogokoena?

*Janarien industrializazioak eta kontsumo gizartea erosago bilakatzen digute bizimodu eta ahaleginak aurrezten dizkigute (are errazagoa da tetrabrika zabaltzea laranjak geuk zukutzea baino); baina horrek ere badauka kontrako alderik, hala nola, jatorrizko zaporeen galera eta “fruta zaporedun” produktu industrialak hartzeak dakarren bitamina urritzea.*


*Ontziratutako produktuek, bestalde, areagotu egiten dute gure elikadurak ingurugiroari eragindako ondorea.*

## HELBURUA

- Kontsumo ohitura osasunariak, baliabideen erabilera egokia eta aurrezpena sustatzea.

## MATERIALAK

- ◆ Edalontziak, ganibetak, eskuzko zukugailuak, iragaztontziak, mahai-zapiak, trupuak, espartzuak, garbigarriak, pitxerrak, zarama poltsak.
- ◆ Laranjak, freskagarri hautsak, zukuak eta nektar komertzialak, begiak estaltzeko zapiak.



## Ariketaren urratsak

1. Irakaslearen laguntzaz nahiz euren kasa, batez, laranja ura prestatuko dute eta, bestetik, hautsez egindako freskagarria. Ondoren, biak dastatu eta zein eta zergatik nahiago duten galdeztuko diegu. Emaitzak arbelean idatziko ditugu.

2. Laranja ura iragazi eta, banan–banan, begiak estalita, berriro dastatu eta errepikatuko diegu galdera; naturala zein dela uste duten ere esan ahal dute. (Nahi bestetan errepika daiteke proba). Emaitzak arbelean idatziko ditugu.

Beste fruta zku natural batzuk eta saltzen diren zku edo nektarrak erkatz ere egin dezagutegu proba.

3. Amaitzeko, jasotako emaitzei buruzko iruzkinak egin ditzakegu guztion artean (zein gustatu zaien gehien, kolore politena zeinek daukan, etxearen zer motatakoak hartu ohi dituzten...).

Zukugailurik izanez gero, hainbat frutaren zukuak egin ditzakegu.